

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

2026rako zerga egutegia onestea

2026rako zerga egutegia eta udal honek kudeatzen dituen aldizkako zergak ordaintzeko epea onetsi behar direla ikusita, honen bidez ondoko hau ebazten dut:

LEHENENGOA. Zerga egutegia eta taldeka eta aldizka jakinarazteko borondatezko ordainketa aldia onestea. Honela geratuko da:

ZERGA	BORONDATEZKO EPEA	EPE EXEKUTIBOA
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga (TMIZ)	2026ko maiatzaren 1etik ekainaren 30era (biak barne)	2026ko uztailaren 1etik aurrera
Landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zerga (OHZ) Ezaugarri berezietako ondasun higiezin gaineko zerga (EBOGZ)	2026ko urriaren 1etik azaroaren 30era (biak barne)	2026ko abenduaren 1etik aurrera
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	2026ko ekainaren 1etik uztailaren 31ra (biak barne)	2026ko abuztuaren 1etik aurrera

Alkateak egutegi hau aldatzeko ahalmena beretzat gordetzen du, baldin eta behar bezala justifikatutako arrazoi teknikoengatik ezinezkoa bada aipatutako baliabide ekonomikoak ezarrita dauden egunetan kudeatzea; kasu horretan, interesdunei behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaie.

Aurreko puntuan adierazitako sarrera-epeetan gerta daitezkeen aldaketak Alkateak onetsiko ditu, eta zerga-egutegi hau bezala argitaratuko dira: ALHAOn eta udalaren iragarki taulan.

BIGARRENA. Zerga erroldak, zeinek ordaindu beharreko kuotak eta horien zerga elementu erabakigarriak jasotzen baitituzte, udal bulegoetan jarriko dira jendaurrean, iragarkia ALHAOn argitaratu ondoren, jendaurreko epean egoki irizten diren alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA. Dirua sartzeko moduak eta ordainketa egiteko lekuak:

A. Banketxeetan helbideratutako ordainketak: ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera badute.

B. Bankuetan helbideratuta ez dauden ordainketak: ordainketa gutun bidez egin beharko da, honako hauetan:

- Ordainagirian ageri diren entitate laguntzaileetan.
- Interneten bidez, web orri honetan: www.euskadi.eus/mipago.

Zuhatsu Kuartango, 2026ko martxoaren 23a

Alkate-lehendakaria
MIREN MEABE CARRO